

EAE-KO KASAZIO-ERREKURTSO ZIBILARI BURUZKO LEGE- AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Txosten hau emateko, kontuan izan da Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzeko Jarraibideetako lehenengo jarraibideko 2.1.a) apartatuak aurreikusitakoa. Jarraibide horiek Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiz onartu ziren.

Txosten honen xedea da: egiaztatzea ea EAeko Kasazio Errekurtsu Zibilari buruzko lege-aurreproiektuak eraginik duen ala ez genero-ikuspegitik eta, ondorioz, ea salbuetsi daitekeen ala ez genero-inpaktuari buruzko txostena egitetik.

Horretarako, araua sustatu duen organoak txosten bat eman du, Jarraibideetako II. eranskinean aurreikusitako moduan, zeinean justifikatzen baita lege horrek ez duela eraginik genero-ikuspuntutik. Txosten horrek adierazten du ezen, nahiz eta araua ezin den sailkatu arau antolatzaile huts modura Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzeko Jarraibideetako lehenengo jarraibideko 2. puntuko 1. apartatuko b) letraren zentzuan, aurreproiektuaren izaera eskusiboki prozesalak -arau antolatzaile horien antzeko bilakatzen du eta lege substantiboetatik bereizi, zeinak gero aztertu baitaitezke jar litezkeen errekurtsoen ondorioz- dakar arauak ez izatea eragin zuzenik genero-ikuspuntutik eta ez eragitea herritarren eskubide eta interes legitimoiei.

Izan ere, lege-proiektu honek kasazio-errekurtsoa arautzen du EAeko Zuzenbide Zuzenbide Zibilaren arloan, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera. Proiektuaren abiapuntua da lege bat sortzea, kasazio-errekurtsoa arautuko duena Euskal Zuzenbide Zibilaren arloan, ordena horretan Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunek eragiten dituzten partikularitasunei erantzuteko, eta lege hori bat etor dadin alor horretan Estatuan sortu den araudi berrienarekin, kasazio-errekurtsoari indarra emateko Zuzenbidearen aplikazio judiziala gauzatzean uniformetasuna segurtatzeko tresna nagusi modura. Horrenbestez, sailak bidalitako justifikazio-txostenak adierazten duenez, txosten horretan araututako neurriek gaitasun eskasa dute gizonen eta emakumeen egoeran eragiteko; beraz, aurreproiektuak ez dauka eraginik genero-perspektiban; ondorioz, uler daiteke salbuetsita dagoela genero-inpaktuari buruzko txostena egitetik.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 28a